Atxikimendu orria

# ALTERNATIBA DAGOELAKO ERRAUSKETARIK EZ!

MARTXOAK 25 HERRI MOBILIZAZIO HANDIA

Kaixo adiskide!

Errausketaren aurkako mugimenduak alternatiba bat plazaratu du hondakinen arazoari konponbide bat emateko. Birziklatu edo konpostatu ezin daitezkeen hondakinak (errefusa) errraustu beharrean irtenbide osasuntsu eta merkeago bat eman ahal izateko. Alternatiba atxikitua doakizue.

Proposamen honekin batera deialdi baten berri eman nahi dizuegu, zuri eta zuen kolektibo edo erakundeari. Martxoaren 25-an eragile desberdinek babesturiko Herri mobilizazio handia egin nahi dugu errausketaren aurka eta proposatzen dugun alternatibaren alde.

Bestalde deialdi honekin ateak ireki nahi dizkizuegu, beti ere gai honekin loturik, zuen aldarrikapen zehatzak gehitzeko. Horrekin batera ondokoa eskatzen dizuegu:

* Orrialde hau sinatu eta zuen atxikimendua adieraztea.

* Mobilizazio eguna bitarte zuen aldarrikapenekin zerikusia eta lotura eduki dezakeen salaketa propio bat egitea, bideo labur baten bidez eta zuen oinarri sozialean zabaltzea, bide batez, mobilizazio egunera gonbidatuz.

* Martxoak 25-ean Herri mobilizazio handia egin nahi dugu, manifestazio bat non mikro manifestazio desberdinak egongo diren, horregatik gonbidatzen zaituztegu zuen makildun pankarta propioarekin parte hartu dezazuen.

* Martxoaren 18an, larunbata, eguerdiko 12-etan Anoeta estadioan prentsaurreko masiboa egin nahi dugu atxikitu diren eragile eta herritarrekin 25-eko manifestaziora deitzeko. Bertaratu zuen ikur eta aldarrikepenekin.

Guzti honekin bat egiten baduzue beheko aldean ipini zuen datuak eta sinadura.

**Errausketaren aurkako mugimendua.**

*Eragilearen izena:* *Sinadura/Zigilua:*